



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 17a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritzari buruzkoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritzari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritzari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritzari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritzari buruzkoa

HITZAURREA

Bitartekaritza pertsonengan sinesten duen instituzioa da, sinetsita baitago pertsonak gai direla erabakiak hartzeko eta beren arteko harremanetatik sortzen diren gatazkak aukera berri bilakatzeko, eta aldeei protagonismoa eman behar zaiela gatazkak elkarrizketaren bidez ebazteko beren prozesuetan. Eztabaidak konpontzeko modu ekonomiko, kooperatibo, gogobeteko eta azkarra izatea du abantaila, eta, aldeek konponbide bat bilatzen saiatzeko borondatea eta konpromisoa dutenez, haren gauzatzea egingarriago bihurtzen da.

Bitartekaritza kokaturik dago ADR (Alternative Dispute Resolution) deiturikoetan; hau da, juridikzio bidearen alternatiba gisako metodoetako bat. Hala ere, metodo horiek alternatiba gisakoak bainoago osagarriak izaten dira askotan. ADRek Europan duten onarpen zabalak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko 2008/52/EE Zuzentarauan dauka erakusgarri behinena; hots, merkataritza arloko eta arlo zibileko aferetako bitartekaritzaren zertzelada batzuei buruzkoan.

Ildo horretan, uztailearen 6ko 5/2012 Legeak, auzi zibil eta merkataritza-ko bitartekaritzari buruzkoak, 2008/52/EE Zuzentzua Espainiako Zuzenbidean barneratu du, eta Espainian gauzatutako eta efektu juridiko loteslea izan nahi duten bitartekaritza guztiei aplikatzeko araubide orokorra osatzen du, aipatu arauaren edukitik harago ere joanez.

Ekimen horretaz gain, autonomia erkidego gehienek familiaren ikuspuntutik erreparatu diote instituzio horri; beste batzuek, esaterako Kataluniak edo Kantabriak, bertsio orohartzaileago batean, familia-bitartekaritzaren esparrua gainditu dute, bitartekaritzari bere esparru guztiz orohartzailean leku emateko.

Beharbada, batetik, gure komunitatearen nor-tasuna, eta, bestetik, ituna eta hitzarmena bezalako kontzeptuek haren konfigurazio historikoan duten garrantzia oinarri hartuta, Nafarroan ugari dira bitartekaritza hainbat esparru eta arlotan sustatu eta herritar guztien artean hedatzeko ekimenak, 2001. urteaz geroztik burutu direnak.

Urte horren amaieran, Familiari Laguntzeko Planaren barruan, Familia Bitartekotzaren Zerbitzua jarri zen abian. Zerbitzu horren arrakasta eta kalitatea eta erabiltzaileek agerian utzitako gogobetetasun maila handia zirela-eta, arau-esparru integratzaile bat ezartzeko beharra sortu zen. Izan ere, seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzaren hausten den kasuetarako arautzen duen martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legeak, azken xedape-

netako bigarreanean, Nafarroako Gobernuari zuzenduriko agindu bat jasotzen du, Familia Bitartekotzaren Zerbitzua arautzekoa.

Era berean, 2006. urtean ezarri zen zigor arloko bitartekaritzaren esparruan, Nafarroak ibilbide luzea egin du, eta gai batzuetan aitzindari da. Horrela ulertu behar dugu Nafarroako Bitartekotza eta Gatazketarako Bakegintza Elkartearekin elkarlanean Iruñeko Instrukzioko 3. epaitegian burutu-tako esperientzia pilotua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bultzatu zuen programaren barnekoa. Esperientzia horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Justizia Zuzendaritza Nagusiak Zigor arloko Bitartekotza Zerbitzua instituzionalizatu zuen, eta dagokion zuzkidura ezarri zuen aurrekontuan; gero, Iruñeko barruti judizialeko instrukzio-epaitegi eta zigor arloko epaitegi guztietara zabaldu du, baita Agoizko eta Lizarrako barruti judizialek eta Iruñeko Probintzia Auzitegira ere.

Ildo berean, foru gobernuak hainbat hitzarmen sinatu ditu Komunitateko abokatu elkargoekin, ekimena hainbat barruti judizialeko jurisdikzio zibilera eta merkataritza arlokora bideratzeko. Azkenean, bitartekaritza prozesuak Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamenduko baremoan sartuak izan ziren, abenduaren 29ko 140/2017 Foru Aginduaren bidez.

Merkataritza arloko bitartekaritza, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, eta administrazio arloko bitartekaritza, Arartekoaren bitartez, beste arlo batzuk dira, non Nafarroak lan egin baitu instituzio hori bultzatzeko. Izan ere, azkenaldian, Arartekoak, bere estatutua aldatu ondoren, abian jarri du bitartekaritza zerbitzu bat, figura hori administrazio arloan garatzeko lanarekin lotzen duena.

Aldeen arteko itunak foru zuzenbide zibilean duen garrantzi nabari eta ezbaigabeak berak bultzatu du legegilea Foru Berriaren erreforma berri eta garrantzitsuen hainbat ataletan bitartekaritza sartzeri. Bereziki adierazgarria izan da familia arloan, urrats garrantzitsua egin delako bitartekaritza zibila Nafarroako erakunde zibilen ardatz egituratzaile gisa instituzionalizatzeke.

Bitartekaritzaren izaera heterogeneoagatik, araudi orokorra eta malgua ezarri behar da, Foru Komunitateak bereganatu dituen eskumenen esparruan bideratuko diren bitartekaritza-prozeduretarako esparru orokor bat ezartzeko, balizko berezitasun sektorialak alde batera utzi gabe.

Hain zuzen ere, bitartekaritza bideratu ahal den sektore-aniztasun hori babestu eta aldeztuko,

erabaki da berritik ezarritako organo eta tresnak Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuaren mende jartzea, Lehendakaritza baita araudi horren bidez ezarri nahi den ikuspegi transbertsalaren kudeatzaile eta bermatzaile. Hori guztia, gainerako departamentuekiko koordinaziora dei eginez, bakoitzak bere lana burutuko baitu, dagokion bitartekaritza motaren arabera.

Horrela, oraingo foru legeak, beste autonomia erkidego batzuek egin dutenarekin bat etorritik, eta batez ere gatazkak adiskidetasunez konpontzean oinarritutako kultura sustatzeko eta Foru Komunitateko organo judizialek heltzen diren auzigaien kopurua gutxitzeko, honako hau lortu nahi du: batetik, esanbidez aitortzea erakunde honen eta azken hogeitaz bitartekaritza Nafarroan sustatzeko lan egin duten profesional eta erakunde zeregina; eta, bestetik, hainbat ekimen eta prozedura ezartzea, kalitatezko bitartekaritza prozesuak bermatzekoak eta bitartekaritza-zeregina esparru zeharo orohartzaile batean aintzat hartzeko, Administrazioak herritar guztiei baldintza-berdintasunean eskaini beharreko zerbitzu publiko gisa.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Bitartekaritzaren kontzeptua eta helburua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, bitartekaritza hartzen da borondatezko prozedura konfidentzial bat, pertsonen arteko komunikazioa erraztea helburu duena, beren kabuz kudea dezaten beren arteko gatazketarako konponbide bat, modu inpartzial eta neutralean diharduen bitartekari profesional baten laguntzaz.

2. Bitartekaritzak, gatazka-kudeaketarako metodo bezala, honako helburu hauek ditu, besteak beste: auzi izaerako prozesu judizialak hasi beharra saihestea; jadanik hasita daudenak bukatzea edo uzurtzea; gatazkan diren pertsonen gatazka horiek konpontzen laguntzea, lehia-errealitateak lankidetzaren errealitate bihurtuz; bakerako hezkuntza-printzipioak garatzen laguntzea; eta komunitate arloko programak garatzea, gatazkei elkarrizketatik hartzeko.

2. artikulua. Xedea.

Foru lege honek helburu du Nafarroako Foru Komunitateko bitartekaritza haren eskumenen esparruan arautzea, baita herritarrek gatazka-konponketarako aukera alternatiboak eskueran izan ditzaten bermatu eta ahalbidetzea ere, zehazki bitartekaritzaren erabilera sustatuz.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru lege hau bitartekaritzaren arloko profesionalen jarduketari aplikatuko zaie, aplikatzekoa den legediaren arabera aldeek askatasunez erabakitzeak aukera duten gaitan.

2. Foru lege hau aplikatuko da lege honekiko menpekotasun esanbidezko nahiz isilbidezkoa dagoenean, gutxienez aldeetako batek helbidea Nafarroan izanda eta bitartekaritza Foru Komunitatearen lurraldean eginda.

Ez da beharrezkoa izanen gutxienez aldeetako batek helbidea Nafarroan izatea, Nafarroako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean dauden gatazken kasuan.

4. artikulua. Bitartekariak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, bitartekari aritzen ahal da unibertsitate-titulu bat edo titulu ofizial bat duen pertsona fisikoa, baldin eta frogatzen badu bitartekaritza arloan berariazko prestakuntza eta gaikuntza dituela, erregelamenduz ezarritako baldintzak betez eguneratuak. Pertsona horrek kasuko lanbide-elkargoko kide edo bitartekaritza arloko lanbide-elkarte bateko kide izan behar du, edo Administrazioarentzako bitartekari-zerbitzuak eman behar ditu.

2. Bitartekariak teknikarien laguntza izaten ahal du, aditu gisa esku har dezaten, baita beste bitartekari batzuen laguntza ere, batez ere bi alde baino gehiago dituzten bitartekaritzetan. Profesional horiek bitartekaritzaren printzipioak bete behar dituzte beren jardunean.

5. artikulua. Bitartekaritza-prozedura batean esku hartzeko legitimatutako pertsonak.

1. Bitartekaritzaren gaiak xedatzeko gaitasuna eta interes legitimoa dituzten pertsonak ahal dute bitartekaritza-prozedura bat hasi eta horretan esku hartu.

2. Adingabeek zilegi dute, baldin eta nahikoa ezagutza badute, eta 16 urtetik gorakoek betiere dute zilegi, berekin zerikusia duten bitartekaritza-prozeduretan esku hartzea.

II. KAPITULUA**1. atala****Bitartekaritzaren printzipio gidariak****6. artikulua.** Borondatezkotasuna.

1. Aldeek askatasun osoa dute bitartekaritza prozedura aukeratu eta lortzeko, baita edozein unetan prozedura horretan atzera egiteko ere. Bitartekaritza prozedura ezin izanen da hasi

gatazkako alde guztiek baimen libre eta informetua eman ez badute.

2. Bitartekaritza prozedura hasi ondoren edozein alde atzera egiten badu, prozesu horri buruzko berariazko legediak hala jaso ezean, ezin dute geroko auzi batean ondorerik izan ez atzera egite horrek, ez aldean negoziazio eskaintzek, ez epe eta modu egokian errebokatutako akordioek, ezta prozeduraren ondorioz ezagututako beste ezein inguruabarrek ere.

3. Borondatezkotasuna bitartekariari ere bada-gokio; izan ere, bitartekariak zilegi du bere izendapenari uko egitea, bitartekaritza prozedura hasteari ezezkoa ematea, prozedura etetea edo, hasia egonik, bukatutzat jotzea, baldin eta prozedura garatzeko inguruabar egokirik ez dagoela ikusten badu. Bitartekaritzaren printzipio gidariren bat urratzen dela ikusten badu, uko egin beharko dio bitartekari aritzeari.

7. artikulua. Berdintasuna.

1. Bitartekaritzako aldeek berdintasunez negoziatu beharko dute, eta bitartekariak zaindu beharko du aldean arteko oreka bermatzen dela. Bitartekaritzatik kanpo geratzen dira halako kasuak non bitartekari edo profesional eskudunak jotzen baitu aldeak berdintasun egoeran ez daudela edo bere esku-hartzeak ezin duela berdintasunik erdietsi.

2. Beharrezkoa bada, bitartekariak etenda utzi beharko du bitartekaritza prozedura, harik eta aldean ahal berdintasuna eta erabakitzeko askatasuna bermatzen den arte; batez ere, indarkeria egoeren ondorioz gertatzen denean. Betiere, bitartekaritza prozedura eten egin behar da edo, hala badagokio, haren hasiera gerarazi, halako egoeretan non legeak esanbidez debekatzen baitu bitartekaritzara jotzea.

8. artikulua. Konfidentzialtasuna.

Bai bitartekaritza prozedura, bai prozeduran horretan zehar ahoz zein dokumentu bidez jasotako informazio guztia, konfidentzialak izanen dira, salbu eta aldeek betebeharrak horretatik esanbidez salbuesten dutenean.

Era berean, printzipio horren betetzea salbuesti beharko da, bitartekaria konturatzen bada pertsona baten bizia edo osotasun fisiko edo psikikoa arriskuan dagoela, edo ofizioz pertsegi daitezkeen delitu-egitateak daudela, baldin egitate horiek ez badaude auzitegi barruko prozesu penaletako konfidentzialtasun arauen aplikaziopean.

9. artikulua. Inpartzialtasuna eta neutraltasuna.

1. Bitartekariak inpartzialtasunez eta neutraltasunez betetzen du bere zeregina, aldean arteko berdintasuna bermatuz. Parte-hartzaileei lagundu behar die konpromisoak eta erabakiak beren kabuz har ditzaten, bitartekariak konponbide edo neurri konkreturik inposatu gabe eta parte hartu gabe.

2. Baldin eta bitartekariaren eta aldeetako baten artean interes gatazkaren bat, odol bidezko laugarren gradura arteko edo ezkontza bidezko bigarren gradura arteko ahaidetasun lotura bat, adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna badago, bitartekariak uko egin behar dio izendapenari.

3. Pertsona bat ezin izanen da bitartekari gisa aritu, lehenago aldeetako baten interesen defentsan profesional gisa aritu bada, haren terapeuta izan bada edo aldeetakoren bat ezagutu badu erakunde publiko zein pribatuetakoa hezitzaile edo gizarte-langile gisa aritu den bitartean.

4. Baldin eta 2. apartatuko kasuetako bat gertatzen bada eta bitartekariak ez badio izendapenari uko egin, aldeak prozedurako edozein unetan errefusatzeko ahal du izendapena, bitartekaria izendatu duen organo edo pertsonaren aurrean, administrazio publikoaren araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko legeak xedatzen duenarekin bat.

10. artikulua. Fede ona eta elkarrekiko errespetua.

Bitartekaritza prozeduran, aldeek eta bitartekariak fede onaren eta elkarrekiko errespetuaren printzipioak betetzeko jardun behar dute. Era berean, prozesuan zehar aldean arteko errespetu faltak gertatzen ez direla bermatzen saiatu behar du bitartekariak.

11. artikulua. Guztiz pertsonala izatea.

1. Aldeek eta bitartekariak pertsonalki agertu behar dute bitartekaritza bileretara, eta ezin izanen dira ordezkari edo tarteko pertsonaz baliatu. Aldean aldibereko presentzia ezinezkoa gertatzen den salbuespeneko egoeretan, urruneko komunikazioa ahalbidetzen duten bitarteko teknikoak erabiltzen ahal dira, bitartekaritzaren printzipioak bermatuta.

2. Pertsona-aniztasun baten baitako bitartekaritza zibilean, aldeek zilegi dute negoziatzeko ahalmena aitortu duten bozeramaileak izendatzea, kolektibo bakoitzaren interesak ordezkatzeko dituztenak.

3. Desgaitasun-kasuetan edo antzekoetan, aldeek zilegi izan behar dute lagunduta egotea beren konfiantzako pertsona batekin edo artikuluko honetako printzipioen betetzea eta entzunak izateko daukaten eskubidea bermatzen dituen beste pertsona batekin.

4. Adingabeen kasuan, legezko tutoreek ordezkari behar dute egon, baina entzunak izan behar dira, heldutasuna duen adingabearen izaera badute.

5. Pertsona juridikoek beren legezko ordezkarien bitartez hartuko dute parte; ordezkariak bitartekariaren aurrean egiaztatu behar dute beren ordezkarietasuna.

6. Aldeetako bat ezgaituta badago, baina ikusten bada nahikoa gaitasun duela prozesuan parte hartzeko, horren printzipioak ulertu eta betetzeko eta akordioak errespetatzeko, zilegi izan behar du prozesuan parte hartzea bere legezko tutoreak bertan egonda.

7. Aldeetakoren bat alkoholaren edo drogen eraginpean badago, inola ere ezin izan behar du bitartekaritza parte hartu.

12. artikulua. Adierazpen-zintzotasuna.

Alde guztiek eta bitartekariak adierazpen-zintzotasunez jokatu behar dute beren esku-hartze guztietan eta bitartekaritza prozesuko fase guztietan, eta bitartekariak zilegi du esku-hartzea bukatzea, aldeek printzipio hori errespetatzen ez dutela jotzen badu.

2. atala

Bitartekaritzaren beste printzipio batzuk

13. artikulua. Gardentasuna.

Aldeek prozeduraren ezaugarriak, funtzionamenduak, norainokoak, ondorioak eta lortzen ahal diren akordioak balioari buruzko informazio zehatza izan behar dute.

14. artikulua. Malgutasuna.

Bitartekaritza prozedura malgua da, eta horri esker, lantzen ari den egoera zehatzari egokitzen ahal zaio, nahiz eta beti bete behar diren foru lege honetan aurreikusitako gutxienezko arauak, prozeduraren kalitatea, bermeak eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

15. artikulua. Kontraesaneko eztabaida.

Bitartekaritza prozeduran zehar, aldeek modua izan behar dute gatazka egoerari buruz daukaten iritzia askatasunez adierazteko. Bitartekariak sustatu behar du aldeak berdintasunez tratatuak

izatea, eta bermatu behar du haien esku-har-
tzeetan oreka egon dadila bitartekaritzan zehar.

16. artikulua. Kalitatea.

1. Lehendakaritza arloan eskumena duen departamentuak sustatuko du borondatezko jokatze-kodeak egin daitezzen, kode horiei atxiki dakizkien bitartekariak zein bitartekaritza zerbitzuen emaile diren erakundeak, bai eta kalitate-kontrolako beste mekanismo eraginkor batzuk ere, bitartekaritza-zerbitzuak emateari dagozkionak.

2. Lehendakaritza gaietan eskumena duen departamentuak sustatuko du bitartekariak hasierako nahiz etengabeko prestakuntza izatea, bermatze aldera bitartekaritza eraginkortasunez, inpartzialtasunez eta gaitasunez egitea aldeei dagokienez.

III. KAPITULUA

Administrazio publikoen eta bitartekaritza arloko beste erakunde batzuen antolamendua eta jarduera

17. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena.

1. Nafarroako Foru Komunitateak Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuaren bitartez egikaritzen du bitartekaritzari buruzko eskumena, ezertan eragotzi gabe Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuek egiten ahal dituzten bitartekaritza jarduerak.

2. Hala ere, Lehendakaritza gaietan eskumena duen departamentua koordinaturik arituko da honako gaietan eskumenak dituzten Gobernuak atalekin: laguntza-zerbitzuak, gizarte-erakundeak eta komunitate-garapena, barne direla gazteei, adinekoei, genero-berdintasunari eta adingabeen babesari eta tutoretzari buruzko politikak.

3. Lehendakaritza gaietan eskumena duen departamentuak honako eskumen hauek izanen ditu bitartekaritza gaiari dagokionez:

a) Nafarroako Foru Komunitateko gainerako administrazio publikoekin elkarlanean eta bere eskumenen esparruan, herritar guztiei bitartekaritza zerbitzuetarako irispidea bermatuko die.

b) Bitartekaritza jardueren eta haien zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan ematen dituzten pertsonen kalitatea bermatuko du.

c) Bitartekariak Erregistro Orokorra kudeatuko du, beti eguneratuta dagoela zainduz, dagokion zerbitzuaren bidez.

d) Zeregin deontologikoa beteko du, eta zeha-
penak ezartzeko ahala erabiliko du arau-hauste
diren egoeretan.

e) Dauden jarduerak planifikatu, arautu, koordi-
natu eta antolatuko ditu, zerbitzua herritarren
beharrizan errealei egokitzen zaiela bermatzeko.

f) Bitartekaritza garatzeko eta foru lege hone-
tan ezarritako xede guztiak betetzeko egin behar
diren jarduera guztiak egiten ditu.

g) Bitartekariak edo bitartekaritzara atxikitako
pertsonak jarritako kexak kudeatuko ditu, horretara-
rako ezarritako den prozedura baliatuz.

h) Bitartekari kualifikazioa lortzeko bete behar
diren baldintzak onetsiko ditu, hasierako eta eten-
gabeko prestakuntzari edo esperientziari buruzko-
ak.

i) Bitartekaria izendatuko du aldeak ados jar-
tzen ez badira, foru lege honetan aurreikusitako
kasuetan, eta, hala badagokio, errekusazio
kasuak ebaztuko ditu.

j) Kasua bada, dagokion lanbide elkargoari
bidaliko dizkio, informazio ondorioetarako, bere
erregistroan izena emandako bitartekariak jardue-
rak direla-eta jaso diren kexa edo salaketak, baita
horien ondorioz ezartzen diren zehapenak ere.

k) Bitartekaritzaren publizitatea herritarrengana-
tzea sustatuko du, bai eta haien artean horren berri
ematea ere.

l) Foru administrazioko esparru guztietan, toki
erakundeak barne direla, bitartekaritza-egiturak
eta -zerbitzuak sortzea sustatuko du, eta horri
buruzko aholkularitza emanen du.

18. artikulua. Toki administrazioak.

Toki entitateek honako eskumen hauek izanen
dituzte bitartekaritzaren arloan:

a) Bitartekaritza sustatuko dute, Lehendakari-
tza gaietan eskudun den departamentuarekin
elkarlanean.

b) Bitartekaritza arloko gizarte- eta komunitate-
ekimeneko programak babestuko dituzte, foru
lege honen esparruan.

c) Arlo horietako jakintzen, esperientzien eta
berrikuntzen elkartrukea sustatuko dute.

d) Lehendakaritza gaietan eskudun den departa-
mentuarekin elkarlanean, bitartekaritza gara-
tzeko behar adina jarduera egiten dituzte.

e) Lehendakaritza gaietan eskudun den departa-
mentuaren mendeko zerbitzuetatik bitartekari-

tzaz arduratzen denari beren mendeko bitartekaritza zerbitzu edo programen berri emanen diote.

f) Foru lege honen 19. artikuluan araututa dagoen Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluan parte hartuko dute.

19. artikulua. Nafarroako Bitartekaritza Kontseilua.

1. Nafarroako Bitartekaritza Kontseilua sortzen da, Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari atxikita, organo aholku-emaile gisa, eskudun diren administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko, azterlanerako, koordinaziorako eta aholkularitzarako organoa izan dadin.

2. Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluak honako kide hauek izanen ditu: administrazio publikoetako, elkargoetako, profesionalen elkarteetako, unibertsitateetako, erakundeetako eta gizarte-entitateetako ordezkariak, eta bitartekaritza arloarekin zerikusia duten eta aholkuak emateko beharrezkotzat jotzen diren entzute handiko profesional guztiak. Haren osaera erregelamenduz zehaztuko da.

3. Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Aurretiazko eta nahitaezko txosten ez-loteslea emanen du, foru lege hau garatzeko jaulkitzen diren erregelamendu-arauei buruzkoa.

b) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari aintzat hartu beharrekoak diren irizpideak proposatuko dizkio, hasierako zein etengabeko prestakuntzako ikastaroek bitartekariak kalitate-bermez prestatzeko baldintza egokiak bete ditzaten.

c) Eginen ditu lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuak bitartekaritza arloko bere jarduerak burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen aholkularitza, koordinazio eta aldezen jarduketak.

d) Urteko oroitidazki bat prestatuko du, bere jarduerari buruzkoa eta bitartekaritzak Nafarroako Foru Komunitatean duen egoera jasotzen duena.

20. artikulua. Lanbide elkargoen, profesionalen elkarten, eta gizarte-erakunde eta -entitateen eginkizunak.

1. Bitartekaritza gaietan esku hartzen duten edo arloko profesionalak biltzen dituzten elkargok, profesionalen elkarteak eta gizarte-erakunde eta -entitateak lankidetzan arituko dira eta koordinaturik jardunen dute Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuarekin; halaber, Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluko kide izanen dira, erregelamenduz ezarriko den moduan.

2. Bitartekaritza arloko profesionalak biltzen dituzten elkargok, profesionalen elkarteek, gizarte-erakunde eta -entitateek honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Bitartekarien erregistro propioa sortu eta kudeatzen ahalko dute, eta erregistro horretan egiten diren aldaketan berri (altak eta bajak) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari (Nafarroako Gobernuan) emanen diote.

b) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari bitartekaria proposatuko diote, aldeek erakunde horietara jotzen badute.

c) Berariazko prestakuntza emanen dute eta bitartekarien gaitasuna deklaratu dute.

d) Eginkizun deontologikoa eta diziplinakoa beteko dute, bitartekaritzan diharduten elkargokide eta elkartekideentzat, guztiek bezeroei informazioa emateko, bitartekaritza sustatzeko eta erabiltzeko betebeharrak –legeek edo dagozkien kode deontologikok ezartzen dizkietenak– betetzen dituztela begiratuko dute.

e) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari jakinaraziko dizkiote bitartekariari irekitako diziplina espedienteen ondorioz hartutako neurriak.

f) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuarekin lankidetzan arituko dira bitartekaritza sustatzeko eta horren ezagutarazpena egiteko.

g) Emanen duten prestakuntza espezializatua eren esparruan, bitartekaritza tekniken eta bestelako gatazka-konponketaren ikasketa sartuko dute.

h) Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluak eskatzen dizkien bitartekaritza-prozedurei buruzko proposamenak egin eta txostenak jaulkiko dituzte.

i) Bitartekaritza arloan burutu dituzten jardueren urteko oroitidazki bat osatuko dute, Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluari bidali beharrekoa.

21. artikulua. Bitartekarien erregistroak.

1. 4. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak, foru lege honek arautzen dituen bitartekaritza lanetan jardun nahi izanez gero, izena eman behar dute beren lanbide elkargoaren erregistroan edo Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuaren mendeko Bitartekarien Erregistro Orokorrean.

2. Bitartekarien Erregistro Orokorra publikoa da eta Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari atxikita dago. Erregistroaren osaera, eginkizunak, izena emateko prozedura eta ziurtagiri-jaulkipena erregelamenduz zehaztuko dira.

3. Bitartekarien Erregistro Orokorra kudeatzeko eskumena duen organoak erregistroa begiratzeko eskaerak jaso eta ebaluatuko ditu, Nafarroako Bitartekaritza Kontseiluaren aholkuak jaso ondoren, Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuak zehaztuko dituen irizpideen arabera; gero, erregistroan inskribatuko ditu foru lege honen 4. artikuluan eskatzen diren baldintzen betetzea frogatu dutenak. Inskripzioa egin ondoren, Erregistroak kasuko ziurtagiria jaulkiko du.

4. Bitartekaritzaren arloko profesionalen elkarte frogatu bateko kide diren bitartekariak Bitartekarien Erregistro Orokorrean izena emateko eskatzen ahal dute. Izena eman ahal izateko, ezarritako betekizunak betetzen dituztela frogatu beharko dute.

5. Informazio ondorioetarako, bitartekaritza arloan diharduten pertsonen eta zerbitzu publikoen zerrenda bat argitaratuko da, bereziki Internet bidezko zabalkundea sustatuz.

22. artikulua. Datuen komunikazioa.

1. Bitartekariak honako hauen berri eman behar dio Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari:

a) Bitartekaritza prozesuaren hasiera, honako hauek adierazita: bitartekari horrek kasuan esku hartzeko oztoporik ez izatea egiaztatu duela; aldeek hasierako akta noiz sinatu duten; kasua bitartekariarengana bideratu duen zerbitzu edo erakundea, edo, hala bada, bere zerbitzuak kontratatu dituen profesionalaren izena; auzitegi barruko bitartekaritza bada, horren emaitzek zein epaitegitan izanen dituzten efektuak; eta esku hartuko duten bitartekarien kopurua, dagozkien erregistro zenbakiak aipatuta. Esku hartu bitartean bitartekariak aldatzen badira, horren berri ere eman beharko da, aldaketaren arrazoiak labur azaltzen dituen txostenarekin batera.

b) Bitartekaritzaren amaiera eta bitartekaritza bakoitzari buruzko datuak, inprimaki normalizatu baten bitartez, kudeaketa-ondorioetarako eta estatistika- nahiz egiaztapen-zereginengatik.

c) Bitartekariak bitartekaritza prozesua akordio-rik gabe amaitutzat jotzea erabaki izana, arrazoiari buruzko txosten labur bat erantsita.

d) Bitartekaritza amaitu izana, horren arrazoia esku hartzearen eta edozein alderen oinarritzko eskubideen arteko bateraezintasuna denean.

e) Bitartekaritza amaitu izana, horren arrazoia denean bateraezina dela bitartekaritza esanbidez debekatzen duen edozein lege-araurekin.

2. Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuak eta esku hartzen duten bitartekariak bermatu beharko dute jasotako datuen konfidentzialtasuna, datu-babesari buruzko araudiari jarraituz.

23. artikulua. Bitartekaritzaren kostuak eta doako bitartekaritzaren kasuak.

1. Bitartekaritzan sortzen diren kostuak gatazkan dauden aldeek zati berdinetan ordainduko dituzte, non eta esanbidezko itunez ez duten bestelako banaketarik adostu.

2. Bitartekaritza judizialean nahiz estrajudizialean, doakotasun-eskubidea izanen dute eskaera aurkeztu duten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta doako bitartekaritzarako eskubidearen onuradun izateko irizpide eta baldintzak betetzen badituzte, lege honen erregelamendu bidezko garapenean ezarritako nondik norakoekin. Doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonak betiere izanen dute doako bitartekaritzarako eskubidea.

3. Pertsona fisikoen kasuan, doako bitartekaritzarako eskubidea norbanakoaren arabera esleituiko da, kontuan harturik eskatzailearen familia-unitatearen ahalmen ekonomikoa eta egoera. Doakotasun-onurarik aitortu ez zaien pertsonak bitartekaritzaren kostutik dagozkien proportzioa ordainduko dute.

4. Aldeetako batek edo gehiagok doako justiziarako eskubidea badute, Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuak ordaindu beharko die bitartekariari, ezarritako tarifen arabera.

5. Administrazioak, erabiltzaileen intereserako eta bitartekaritzaren zabalkundea egiteko, aurreikusten ahal du erabiltzaileei doako bitartekaritza eskaintzen dieten programak abiatzeko aukera, bai Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuaren ekimenez, bai gobernuko beste departamentu batzuekin edo erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean.

IV. KAPITULUA

Eskubide eta betebeharrak bitartekaritzan

24. artikulua. Bitartekaritzako aldeek eskubideak. Bitartekaritzako aldeek honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Bitartekaritzarako irispidea, legez aurreikusitako nondik norakoekin.

b) Bitartekaria aukeratzen ahalko dute, lege honetan ezarritako nondik norakoekin doako bitartekaritzarako eskubidearen onuradun diren kasuetan izan ezik eta bitartekaritza doako zerbi-

tzu edo programa baten barruan egiten denetan izan ezik.

c) Bitartekaritza prozedura uzten ahalko dute, edozein fasetan.

d) Prozeduraren edozein unetan, bitartekariarekiko desadostasun arrazoitua adierazten ahal dute, eta haren esku-hartzea errefusatu. Horrelakorik gertatuz gero, beste profesional bat izendatzea adosten ahalko dute.

e) Bitartekaritza hasi aurretik, jarduera horren gehieneko kostua zein izanen den jakiten ahalko dute.

f) Bitartekaritza prozesuak irauten duen bitartean, bitartekaria ez den beste pertsona baten aholkuak jasotzen ahalko dituzte, egoki irizten badiote.

g) Bitartekariarengandik jasotzen ahalko dituzte: idatzizko informazioa, modu argi eta ulergarriaren prozesuan zehar –norberaren inguruabarren arabera– bete beharreko printzipioak eta faseak azaltzen dituen; eratzte saioaren aktaren ale bat; egindako saioen frogagiriak eta amaierako saioaren aktaren ale bat; azken horri lortutako akordioak erantsiko zaizkio, hala badagokio.

h) Jasotako zerbitzuaren inguruko iradokizun, kexa eta erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte, 17. artikuluan aurreikusten diren nondik norakoekin.

25. artikulua. Bitartekaritzako aldeek betebeharrak. Bitartekaritzako aldeek behar izanen dute:

a) Foru lege honen II. kapituluaren jasotako printzipioak errespetatu, eta, bitartekaritza prozesu osoan, akordioak lortzeko prestasuna erakutsi.

b) Bitartekariari lanbide-ordainsariak eta bitartekaritza prozesutik eratorritako gastuak ordaindu, salbu eta bitartekariak doan ematen duen bitartekaritza zerbitzua denean edo doako bitartekaritza zerbitzua jasotzeko eskubidearen onuradun direnean. Aipatu ordainsaria ordainduko da, foru legean aipatutako arrazoiak edozein dela medio bitartekaritza prozesua akordiorik gabe amaitzen bada ere, baldin eta ordaindu beharreko lan profesionala eragin badu.

c) Eratzte saioaren akta eta amaierako saioarena sinatu.

26. artikulua. Bitartekarien eskubideak.

1. Bitartekariak bere jardunari zor zaion errespetua izateko eskubidea du, baita lanean ari denean askatasunez eta independentziaz jokatzeko eskubidea ere.

2. Bitartekariak zilegi izanen du bitartekaritza prozesua hasteari ezezkoa ematea edo prozesu hori amaitutzat jotzea, modu arrazoituan irizten badio bitartekaritzak ez dituela bere helburuak beteko; halakoetan, aldeei eta Lehendakaritza gaitan eskudun den departamentuari bere erabakiaren arrazoiak azaldu beharko dizkie, eta haiei akta bat entregatu beharko die, bitartekaritza egiteari uko egiten diola adierazten duena.

3. Enplegatu publikoa ez den bitartekariak eskubidea du bere lanbide jardueratik diru ordaina edo zerbitzu sariak jasotzeko, eta sortu zaizkion gastuak itzuliko zaizkio, baldin eta bere eginkizuna betetzeari estu-estu lotuta badaude.

Aurreko paragrafoak berekin dakarren enplegatu publikoen salbuespena beren eginkizun publikoetako jardunari dagokio, eta ez partikular gisa edo pertsona pribatu gisa nahitaezko bateragarritasuna lortu ondoren egiten dituen jardueri.

4. Doako bitartekaritzaren onura aitortzen denean, ordainsariak hertsiki izanen dira Administrazioak ezarritako tarifetan agertzen direnak.

27. artikulua. Bitartekarien betebeharrak.

Bitartekariak honako hauek bete behar ditu bere jardunean:

a) Independentziaz jokatu, eta foru lege honek jasotzen dituen bitartekaritzaren printzipio gidariak errespetatu.

b) Zuzenean egin behar du bitartekaritza lana, aldeei informazioa eman eta bitartekaritza prozesu osoa, printzipioak, ondorioak eta kostua azaldu ondoren.

c) Aldeek legezkotasunaren esparruan onargarri diren konponbideak aurki ditzaten erabili behar du bitartekaritza prozedura. Era berean, erabakiko du prozesu hori legalki noiz den ezezkoa.

d) Aldeen arteko komunikazioa erraztu behar du. Bereziki, hizkuntza komunikaziorako oztopo izaten ahal bada, zainduko du, ezagutza propioa baliatuz edo itzultzaileen laguntzaz, aldeek prozesua arazorik gabe ulertzen dutela.

e) Lortutako akordioetan batez ere seme-alaba adingabeen, ezgaituen eta mendekotasuna duten pertsonen goreneko interesa errespetatuko direla begiratu beharko du.

f) Lagundu egin behar du aldeek akordioak askatasunez, borondatez eta bortxarik gabe lortzeko behar beste informazio eta aholku izan dezaten.

g) Eratzeko saioaren eta amaierako saioaren aktak aldeek ulertzeko moduan idatziko ditu, akta horiek sinatuko ditu, aldean sinadura eskatuko du eta ale bana emanen die. Beste ale bat espedientearen gordeko du, datuen babesari buruzko legeak xedatutako moduan eta epean.

h) Akordiorik badago, aldeek ulertzeko moduan idatziko du; aldean nahia aktetan fidelki jasota dagoela egiaztatu; aldean sinadura eskatu eta ale bana emanen die, beste ale bat espedientearen gordeta.

i) Saioen egiaztagiria idatzi, sinatu eta, hala badagokio, aldeei emanen dizkie.

i) Administrazioak egin beharreko ikuskapena edo jarraipena erraztu behar ditu, lanbideko sekretuari eta konfidentzialtasunari lotutako betebeharrak kontuan hartuta.

j) Arreta berezia jarri behar du aldean arteko indarkeria fisiko nahiz psikikoaren edozein seinaletan, aldean arteko oreka bermatze aldera.

k) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari jakinaraziko dizkio, erregulamenduz ezartzen den moduan, bitartekaritza prozesu bakoitzaren datuak, foru lege honen 22. artikuluan aipatzen direnak, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako printzipioak errespetatuz.

l) Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat kontratatu behar du.

m) Bere inpartzialtasunean eragina izaten ahal duten inguruabarren berri eman behar du; halakotan, ez du bitartekaritza hasiko, edo utzi egiten du.

n) Ez ditu aldeak artatuko bitartekaritza ez den jarduketa profesional batean, gai berari buruzkoa bada. Hala ere, aldeak ados jartzen badira, bitartekari bera aukeratu ahal izanen dute, ondoko ondoko gatazkak konpontzeko.

ñ) Aldeek adierazitako konponbidean eta hitzartutakoari jarraikiz esku hartu beharko duten justizia, osasungintza nahiz gizarte-zerbitzuen alorretako erakunde publikoetara bideratu behar du kasua, justifikazio txostenarekin.

o) Akordioak legearekin bat idatzi direla eta amaierako akordioa sinatu aurretik osatu beharreko puntu guztiak bete direla bermatu behar du.

p) Akordioaren jarraipena egin behar du, erreklamenduz ezarritako den moduan.

V. KAPITULUA

Bitartekaritza prozedura

28. artikulua. Bitartekaritza hastea

1. Bitartekaritza honako egoera hauetan egiten ahal da:

a) Prozesu judiziala hasi aurretik, bizikidetzak gatazkak edo desadostasunak sortzen direnean.

b) Prozesu judiziala hasi gabe dagoenean, edozein instantzia eta errekurtsotan, epai-betearazpenean edo ebazpen judizial irmoz ezarritako neurriak aldatzeko, prozesu legeriak zehazturiko nondik norakoei jarraituz.

2. Honako hauek aurkezten ahal dute bitartekaritza hasteko eskaera:

a) Aldeek, adostasunez, beren ekimenez edo agintari judizialak eskatuta, edo bake epaitegiek, elkargoetako kide diren profesionalek edo hainbat arlotako zerbitzu publikoek kasua bideratu eta aldeei proposatu ondoren.

b) Aldeetako batek, beste aldeak edo beste aldeek beren onarpena adierazi badute, informatuak izan eta hurrengo hogege egunetan.

3. Doako bitartekaritzaren kasuan, bitartekaritza prozesu batean lehenago aztertu diren gatazkak berriro aztertzei aukera egonen da, baldin eta esku-hartzea aztertzen ari den bitartekariak antzematen ez badu bitartekaritza prozesuan parte-hartzaile batek hori prozesu judizialak luzazteko edo hastea geroratzeko egiten duela.

29. artikulua. Informazio saioa.

1. Bitartekaritza prozesua bideratzeko izendatutako bitartekariak aldeak deituko ditu informazio saioan parte hartzeko; bertan, agerian utziko ditu bere lanbidea, prestakuntza eta esperientzia, eta bere inpartzialtasunean eragiten ahal duten arrazoiak jakinaraziko dizkie.

Halaber, bitartekaritzaren printzipio gidariak azalduko dizkie aldeei, baita honako hauek ere: bitartekaritza prozedura onartzeak dakartzen ondorioak, alde bakoitzarekin banakako saioak egiteko aukera, prozeduraren gehieneko iraupena, aldean eta bitartekariaren eskubide eta betebeharrak, lortzen ahal den akordioaren ondorio juridikoak, eratze saioaren akta sinatzeko epea eta, hala badagokio, aurrekontuko gehieneko kostua.

2. Edozein alde justifikaziorik gabe informazio saiora bertaratzen ez bada, eskatutako bitartekaritzan atzera egin duela joko da.

3. Saio hori ere konfidentziala da, bertaratu ez direnei buruzko informazioa salbu.

4. Bitartekariak idatziz entregatuko ditu printzipio gidariak, eta argi eta garbi azalduko ditu bai printzipio horiek, baita bere esku-hartzean jarraitu beharreko prozesua ere.

30. artikulua. Eratze saioa eta horren akta.

1. Bitartekaritza prozesua eratze saio baten bidez hasiko da, non aldeek bitartekaritzan parte hartzeko nahia adieraziko duten eta honako alderdi hauek jasota utziko dituzten:

a) Aldeen identifikazioa.

b) Bitartekariaren izendapena eta, hala bada-gokio, bitartekaritza erakundearena edo alde batek izendatutakoa onartzea.

c) Bitartekaritza prozeduraren xede den gatazkaren gaia.

d) Jarduketan programa. Prozedura burutzeko aurreikusitako gehieneko iraupena, aldatzeko aukera alde batera utzi gabe.

e) Bitartekaritzaren kostuari buruzko informazioa edo kostu hori zehazteko oinarriak.

f) Aldeen adierazpena, bitartekaritza beren borondatez onartzeari buruzkoa eta bitartekaritzatik eratorritako betebeharrak beren gain hartzeari buruzkoa.

g) Prozedura non eta zein hizkuntzatan egingen den.

h) Bitartekaria beste pertsona bat izateko arrazoiak.

2. Eratze saioari buruzko akta egingen da, non jasota utziko baitira aurreko apartatuan aurreikusitako alderdiak. Akta hori aldeek eta bitartekariak sinatuko dute, eta aldeei aktaren kopia bana emanen zaie, jatorrizko akta espedientean gordेरik.

31. artikulua. Bitartekaritza prozesuaren garapena.

1. Bitartekaritzari eratze saioaren akta sinatu ondoren ekinen zaio.

2. Prozesu osoan zehar, aldeak bitartekariarekin bilduko dira, hitzartuko den maiztasunarekin. Edozein bitartekaritza prozesutan, beste bitartekari bat sartzea adosten ahalko da; pertsona horrek koordinaturik jardunen du hasieran izendatutakoarekin batera.

3. Bitartekaritza prozesuan, bitartekariak aztertzen ahal du saiorik egingen ez den denboraldi bat ezartzeko aukera, aldeek dagoeneko jorratu diren akordioak burutu ahal izateko eta haien arteko konfiantza sortzeko, gero batean bitartekaritza prozesuko hurrengo saioak eginik, gatazkaren

parte diren gainerako gaiak, eratze saioan ezarritakoak, jorratzeko.

4. Bitartekariaren eta gatazkan dauden pertsonen arteko komunikazioak aldiberekoak nahiz ez-aldiberekoak izaten ahalko dira.

5. Aldeekiko komunikazioak online egiten ahalko dira, esku hartzeko modu hori beharrezkoa bada parte-hartzaileen inguruabar pertsonalen ondorioz eta modu seguruan egiten bada.

32. artikulua. Bitartekaritzaren iraupena.

1. Bitartekaritza prozeduraren iraupena ahalik eta laburrena izanen da, eta jarduketak ahalik eta saio kopuru txikienean burutuko dira; kopuru hori prozeduraren konplexutasunaren arabera zehaztuko da, baina inola ere ezin izanen du gainditu foru lege honetan ezarritako epea.

2. Bitartekaritza prozedura osatuko duten saioen banaketa eta kopurua aldeekin adosten saiatuko da bitartekaria, baina iraupena ezin izanen da hiru hilabetetik gorakoa izan, hasierako eratze saioa egiten denetik zenbatzen hasita.

3. Bitartekariaren proposamenez edo aldeek hala eskaturik, luzapen bakarra adosten ahalko da, ezinbesteko gutxieneko iraupena izanen duena eta, betiere, gehienez ere bi hilabetekoa, akordioetara iristeko aukera ikusten den egoeretan. Doako bitartekaritzako zerbitzuen kasuetan, luzapena egiteko baimena bitartekaritzaren gaian eskudun den departamentuari eskatu beharko dio bitartekariak.

33. artikulua. Entzunaldia eta hirugarrenen parte hartzea.

1. Akordioak beste pertsona batzuen interesekoak izaten ahal direnean, aldeek aurretik entzunaldia ematen ahalko zaie, pertsonalki edo, hala badagokio, legezko ordezkarien bitartez parte har dezaten.

2. Bitartekaritza prozesuan parte hartzen duten aldeek jakinaraziko diete hirugarrenei akordioen eduki zehatza, bitartekariaren aurrean; edo, bestela, eduki hori bitartekariak jakinaraziko du, aldeek hala eskatzen badute.

3. Hirugarrenek egokitzen dituzten alegazioak aurkeztuko dituzte, jakinarazpena egin zitzaizen modu berean.

4. Edonola ere, bitartekariak jakinaraziko die aldeei hirugarrenentzako entzunaldia egiteak edo ez egiteak izaten ahal dituen ondorio prozesalak.

34. artikulua. Bitartekaritza prozesua amaitzea.

1. Bitartekaritza prozesua indarrean dagoen legedian aipatzen diren arrazoiengatik amaituko da, osoko akordioekin nahiz akordio partzialekin, edota akordiorik gabe, gatazkan dauden aldeetako edozeinek hala erabakita edo, kasu batzuetan, bitartekariaren erabakiz.

2. Bitartekaritza akordiorik gabe amaituko da dela alde guztiek edo aldeetako batek bitartekaritza prozesua amaituzat jotzeko eskubidea baliatu dutelako, erabaki horren berri bitartekariari eman ez, dela aldeek adostutako gehieneko epea amaitu delako; halaber, bitartekariak aldeen jarrerak bateraezinak direla modu arrazoituan adierazten duelako, edota prozesua amaitzeko beste arrazoi bat agertzen delako.

3. Bitartekariak honako kasuetan jotzen ahalko du amaituzat bitartekaritza:

a) Aldeetako batek ez duenean laguntzen, ezarritako betebeharrak betetzen ez dituenean edo saioetan parte hartzen ez duenean, horretarako justifikaziorik gabe.

b) Prozesuaren helburua lortzerik ez dagoela uste duenean.

c) Gatazkari beste esku-hartze edo tratamendu bat baliatuz heldu behar zaiola konturatzen denean.

d) Bitartekaritza prozesuan printzipio gidariak betetzen ez direla uste duenean.

e) Bitartekaritza prozesuan, aldeen artean beharrezkoa den oreka errespetatzen ez dela konturatzen denean.

f) Aldeen artean berdintasunik eza eragiten duten indarkeria egoerak detektatzen dituenean, bikotekideen arteko indarkeria izan, seme-alaben kontrako indarkeria izan, 65 urtetik gorakoen edo mendeko pertsonen kontrako indarkeria izan; eta, edonola ere, esku-hartzea zuzenbideak aginduta-koarekin bateragarria ez denean.

g) Prozesuaren gehieneko iraupen-epea akordiorik lortu gabe igaro denean.

h) Prozesua jardun judizialari begira luzamendu arrazoigabe gisa erabiltzen ari dela jotzen duenean.

i) Aldeetako batek prozesua ulertzeko edo akordioak betetzeko nahikoa gaitasunik ez duela ohartzen denean.

4. Bitartekaritzaren amaitzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudu-

nari jakinaraziko zaio, baita kasua bideratu duen erakundeari ere.

5. Bitartekariak amaierako saioaren akta egiten du; gainerako informazio guztia bezala, hori ere konfidentziala izanen da, eta honako datu hauek jasoko ditu: egindako saioen kopuru osoa, saio bakoitzaren tokia eta data, parte hartzaileak eta akordioak lortu diren ala ez. Amaierako aktaren originalen kopurua bat etorriko da aldeen kopuruarekin, eta beste original bat egiten da, espedientearen artxibatuzko. Aldeek adosten ahalko dute lortutako akordioak, osokoak nahiz partzialak, publiko egiten ahalko direla; erabaki hori esanbidez jasota utziko da akordioan, publikotasun horren inguruabarrekin eta edukiarekin batera.

6. Prozesua amaitzean, alde bakoitzari itzuliko zaizkio aurkeztu dituen dokumentuak. Espedientearen geratu behar diren dokumentuei dagokienez, haien kopia bat utziko da bertan.

7. Bitartekariak bitartekaritza amaitzeko erabakia artikulua honen bigarren apartatuan aipatutakoak ez diren arrazoiak direla medio hartzen badu, eta akordiorik ez badago, bitartekariaren uko egiteak prozedura administratiboa amaituko du, baldin eta beste bitartekariarik izendatzen ez bada.

35. artikulua. Lortutako akordioen edukia eta efektuak.

1. Lortu behar diren akordioek indarrean dagoen legedian aurreikusitakoa bete beharko dute, eta honako hauek izan behar dituzte kontuan:

a) Bitartekaritzaren bidez ebatzi nahi diren kontuak inola ere ezin dira aldeek erabakitzeke ahalmenik ez duten gaiei buruzkoak izan.

b) Edonola ere, lortuko diren akordioek adingabeen, mendekotasun egoeran daudenen eta ezin duen interes gorena errespetatuko dute.

c) Lortzen diren akordioak baliogabetu ahalko dira estatuko legerian xedatutako kasuetan eta legeria horrek ezarritako prozeduren bidez.

d) Akordioetan inola ere ez da eginkizunik jasoko bitartekaritzaren irizpide etikoen aurka doanik, nabarmen bidegabea denik, aldeetako bati kalte justifikatugabea egiten dionik edo akordioa betetzera behartuta dagoenaren ohorearen edo irudiaren nabarmenki aurkakotzat jotzen diren betebeharrak jasotzen dituenik.

2. Bitartekariak aldeei jakinaraziko die lortutako akordioa loteslea dela, eta, hala badagokio, eskritura publikoan jasotzeko eskatzen ahal dutela, akordioa betearazpen titulu bihurtzeko.

3. Bitartekaritzako akordioak aldeek sinatuko dituzte, eta bakoitzak dagokion originala jasoko du; beste original bat espedientean artxibatuko da.

4. Egindako bitartekaritzaren ondoriozko akordioak baliozkoak izateko, adingabeen babesaren inguruko eskumena duen erakunde publikoak eraturako tutoretzapean edo harrera egoeran dauden adingabeekin zerikusia badute, legezko tutoreen onespena beharko da.

5. Arlo zibileko eta gizarte arloko bitartekaritza prozesuan lortutako akordioak, hala badagokio, erdibideko gisa judizialki homologatzen ahalko dira, eta legeek ezarritako gainerako ondorioak izanen dituzte; era berean, eskritura publikoan jasotzen ahalko dira. Eskritura publikoan jasotzeak, legez aurreikusitako kasuetan, eskriturari lotutako ondorioak izanen ditu, legeek ezarritakoak, eta eskrituraren kostua bitartekaritzako akordioan bertan finkatu beharko da.

6. Prozedura administratibo batean lortutako akordioak bertan gehituko dira, prozedura amaitzen duen ebazpena eman aurretik.

7. Zigor arloan lortutako akordioak bidaliko dira kasua auzitegi barruko bitartekaritzako programen arabera bideratu duen epaitegira.

8. Agintari judizialaren aginduz egindako bitartekaritzan, bitartekariak agintari horri akordioa lortu den ala ez jakinarazi behar dio, bitartekaritza amaitu eta hurrengo bost egun baldioduneko epean.

VI. KAPITULUA Zehapen araubidea

36. artikulua. Izaera orokorreko xedapenak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako betebeharrak –bitartekariari zein aldeei dagozkienak– ez betetzeak, administrazioko arau-haustea eratzen duten jarduerak edo omisioak badira, kasuan-kasuan dagozkion zehapenak ekarriko ditu, organo eskudunak kontraesaneko espedientearen instrukzioa egin ondoren, foru lege honen 17. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Foru lege honetan ezarritako arau-hauste administratiboek ez dituzte eragozten haien egileen erantzukizun zibilak, zigor arlokoak edo bestelakoak.

37. artikulua. Arau-hauste motak.

Foru lege honetako aginduak bete ez izanaren ondoriozko arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak izaten ahal dira.

38. artikulua. Arau-hauste arinak. Arau-hauste arinak hauek izanen dira:

a) Espedienteko dokumentuetako edozeinen kopia aldeei ez ematea.

b) Bitartekari lana bertan behera uztea, arrazoi justifikatua dela medio, behar adinako aurreneboraz jakinarazi gabe.

c) Prozedura hasterakoan, 29. artikuluan aipatzen diren egoeren berri ez ematea.

d) Lokalek, instalazioek, altzariek edo tresneriak zenbait gabezia izatea, funtzionamendu, garbitasun eta higieneari dagokienez, nahiz eta horrek erabiltzaileen segurtasunerako edo osasunerako arriskurik ez izan.

e) Lege honen bidez bitartekariari ezarri zaizkien beharretako beste edozein bete gabe uztea, baldin eta ez badago arau-hauste astun edo oso astun gisa sailkatuta.

39. artikulua. Arau-hauste astunak. Arau-hauste astunak hauek izanen dira:

a) Bitartekaritza jarduera kobratzea, zerbitzua doan eman behar den egoeretan.

b) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuak eskatutako agiriak eta datuak –foru lege honen 22. artikuluan jasotakoak– faltsutzea.

c) Bitartekaritzari edo bitartekaritzan diharduten profesionalen jardunari kalte egin diezaieketen jarduerak garatzea.

d) Prozesua gehiegi luzatzea, bitartekariari bakarrik egotz dakiokkeen arrazoiren bat dela eta.

e) Bitartekaritzan parte hartzen duten aldeekiko arretarik edo axolarik ez izatea.

f) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egi-teagatik zehapena jasotzea.

g) Bitartekaritza zereginekin hastea aldean aurretiatzko onarpena izan gabe.

h) Bitartekaritza zeregina bertan behera uztea, justifikaziorik gabe.

i) Bitartekaritza prozesu batean esku hartzea, nahiz eta bateraezintasunen bat edo parte ez hartzeko arrazoiren bat egon.

j) Bitartekaritzapeko pertsonenganako errespetu-galtze larria.

k) Prozeduraren hasierako eta bukaerako aktak idazteko eginbeharra bete gabe uztea.

40. artikulua. Arau-hauste oso astunak. Arau-hauste oso astunak hauek izanen dira:

a) Nabarmen legez kanpokoak diren akordioak egiten uztea.

b) Foru lege honen 7.2 artikulua arabera bitartekaritza kanpo utzitako egoeretan bitartekaritza zereginekin hastea edo horiek aurrera eramatea.

c) Bitartekaritza zereginekin hastea edo horiek aurrera eramatea, foru lege honen II. kapituluaren ezarritako printzipio gidariak betetzen ez direnean.

d) Foru lege honen 9.2 artikuluan jasotako bateraezintasun arrazoiak ez betetzea.

e) Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuari foru lege honen 22. artikuluan aipatzen den dokumentazioa ez ematea.

f) Bitartekaritzako alderen batentzat arraza, sexu, erlijio edo beste edozein gorabehera bategatik diskriminatzailea den jarduketa oro.

g) Bitartekaritza zeregina justifikatutako arrazoirik gabe bertan behera uztea, horrek aldeetakoaren bati kalte larria eragiten badio.

h) Bitartekaritzari eustea, printzipio gidarietako baten bat betetzen ez bada ere.

i) Arau-hauste astunak berriz egitea.

j) Bitartekaritza prozeduretan parte hartzea horretarako etenaldia ezarrita edukirik.

k) Bitartekaritza prozesu batean esku hartzea aldeetako bati kalte nabarmena eta objektiboa eragiten dion bateraezintasunen bat edo parte ez hartzeko arrazoiaren bat gertatzen denean.

l) Bitartekaritza saioetara joateko ordezkariak edo bitartekariak erabiltzea, pertsonalki joan beharrean.

m) Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak haustea.

n) Bitartekaritzaren barruan, aldeek adingaberen, ahalmen urrituen eta mendekotasuna dutenen interesak kontuan izan ditzaten eragozteak.

41. artikulua. Arau-haustea berriro egitea.

Arau-haustea berriro egin dela esan da, arau-haustea egin duena, jakinarazi zaion egunetik bertatik urtebetera bitarteko epean, izaera bereko beste arau-hauste bat egiteagatik administrazio bidean ebazpen irmoz zehatua izan denean.

42. artikulua. Zehapen motak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako zehapen administratiboak arau-haustearen kalifikazioaren arabera ezarriko dira:

a) Arau-hauste arinak direnean, idatzizko ohar-tarazpena egingen da edo bitartekari lanetan jarduteko aldi baterako etenaldia ezarriko da, gehienez hilabetekoa.

b) Arau-hauste astunak direnean, bitartekari lanetan jarduteko aldi bateko etenaldia ezarriko da, hilabete eta egun batetik urtebetera bitarteko denborarako.

c) Arau-hauste oso astunak direnean, bitartekari lanetan jarduteko aldi bateko etenaldia ezarriko da, urtebete eta egun batetik hiru urtera bitarteko denborarako, edo, arau-haustearen larritasunagatik edo arau-haustea berriro egiteagatik, ezarritako etenaldi hori behin betikoa ere izaten ahal da.

2. Edonola ere, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzuli egingen dira, bestelako kalte eta galerengatik ordaina ematea galarazi gabe.

3. Administrazio bidean irmotasuna hartzen duten zehapen guztiak Bitartekarien Erregistro Orokorrean jasota geratuko dira.

43. artikulua. Zehapenen mailaketa.

Zehapenak aplikatzerakoan, organo eskudunak honako mailakatze irizpide hauek hartuko ditu aintzat:

a) Eragindako kalte moralak eta materialak.

b) Eragindako arriskua.

c) Arau-haustea zenbateraino den nahita edo zabarkeriaz egina.

d) Arau-haustearen ondorioak jasan dituzten pertsonen kopurua.

e) Aurrez egindako ohartarazpenak eta errekerimenduak ez betetzea.

f) Arau-haustea berriro egitea, foru lege honen 41. artikuluan adierazten den moduan.

g) Egindako kaltearen edo galeraren larritasuna.

h) Ez-betetzeak adingabeei, desgaitasuna duten pertsonen edo mendekotasun egoeran daudenei eragindako kaltearen garrantzia.

i) Arau-hausleak eskuratutako onura ekonomikoa.

Nolanahi ere, zehapenak beren erdialdetik gorako tartekoak izanen dira, arau-hauslearen

jokabideak adingabe baten edo desgaitasuna duen pertsona baten interesak arrisku zehatz batean jarri dituen.

44. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapenak ezartzeko ahalmena egikaritu da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

45. artikulua. Zehapen prozedura bideratzeko eskumena.

1. Foru administrazioaren organo eskudunak bideratuko du zehapen espedienteak.

2. Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentua izanen da foru lege honetan aurreikusitako zehapen administratiboak ezartzeko organo eskuduna, aldez aurretik kasuko prozedura bideratuta.

3. Zehapen prozedura hasteko eta bideratzeko eskumena, kasu honetan, bitartekaritza gaiak esleitua dituen zuzendaritza nagusiarena izanen da. Lehendakaritza gaietan eskudun den departamentuko titularrari dagokio lege honek arau-hauste oso astunetarako aurreikusten dituen zehapenak ezartzea; gainerako zehapenak jartzea, berriz, zuzendaritza nagusiari dagokio.

Xedapen iragankor bakarra.

Foru lege honek indarra hartzen duenean abian dauden bitartekaritzako zerbitzu edota programa publiko eta sozialek ordura arte bete izan dituzten zereginak betetzen jarraitu ahalko dute, lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean gehienez ere. Epe hori bukatzean, aldiz, lege honek jasotakora egokitu beharra izanen dute, erregelamenduz ezarriko den moduan, azken xedapenetako lehenengoan adierazitakoaren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak jaulkiko ditu.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

1. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Baldin eta, erregelamenduzko garapenaren ondorioz, foru lege honetan agertzen diren neurriek gastuak egitera behartzen badute, neurri horiek jasoko diren aurrekontuak izanen dira neurri horien aplikaziorako onetsiriko xedapenek indar hartzen duten ekitaldiaren hurrengoko Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuak.

